

# BALEIKE



## BATZEN GAITUENA GARA

B K erto  KH  ZH

### GABONETAKO #ERROTAHERRIA KANPAINA

#errotaherria gara

bonuak 15-5 €

Laster herriko merkataritza eta ostalaritza guneeetan



# Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



## Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak  
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

***Etxez etxeko zerbitzua!***

Santiago auzoa, 18  
943-86 26 11

[www.floristeriabasusta.com](http://www.floristeriabasusta.com)



## BALEIKE 303

2020-AZAROA

AZALEKO DISEINUAREN EGILEA:  
IÑAKI MARTINEZ

### Aurkibidea

- |    |  |    |   |
|----|--|----|---|
| 4  | <b>Hitz tantak</b> Maria Maya Manterola<br><i>Aisling Bux</i>  | 28 | <b>Bazkide kluba</b>  |
| 6  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Arnaitz Rubio<br>Aprea<br><i>Alex</i>  | 30 | <b>Plazan bazan</b>   |
| 8  | <b>Hainbat aburu</b> Haritz Eiguren<br><i>Zumaian hazi eta bizi</i>  | 33 | <b>Heziketa</b> Mireia Centeno<br><i>Errespetuz jokatu errespetua merezi ahal izateko</i> |
| 9  | <b>Errematea</b> Miren Osa Galdona<br><i>Gure kulturari</i>  | 35 | <b>Orduan bai</b> Imanol Azkue<br><i>Etsamina</i>   |
| 10 | <b>Zientzia eta ingurumena</b> Gorka Zabaleta<br><i>Leire Barriuso eta Asier Hilario: sekulako aukera daukagu hemen geologia eta kultura elkarri lotuta esplikatzeko</i> | 40 | <b>Kultura</b> Juan Luis Romatet<br><i>Klarinete doinuak pandemiaren erdian</i>           |
| 16 | <b>Erreportajea</b><br><i>Urolako Komunikazio Taldearen aurkezpena</i>   | 43 | <b>Literatura</b> Antton Peñalba<br><i>Gizonok arropa berriari neurria hartzen</i>        |
|    |  | 45 | <b>Nire txanda</b> Ekain Albite<br><i>Ekin!</i>   |
|    |  | 46 | <b>Azkena</b> Juan Luis Romatet<br><i>Herdoildutako labana suitzarra</i>                  |

## BALEIKE

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

### Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia  
**Zuzendaria**  
Juan Luis Romatet  
kattan@baleike.eus  
**Erredaktore taldea**  
Maria Maya Manterola  
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue  
Gorka Zabaleta

### Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue

### Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

### Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru  
publizitatea@baleike.eus

### Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza  
administrazioa@baleike.eus

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

### Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

# Aisling Bux

---

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** MARIA MAYA MANTEROLA

---

Kriminologia ikasketak egiten ari da Aisling Bux (Zumaia, 1999) Donostian. Pasioz aritu da kriminologiaren inguruan hizketan; nabari da egiten duena gustatzen zaiola. Kriminologiaren inguruan gizarteak duen irudia alboratu eta benetan den horren inguruan aritu da, besteak beste, Bux.

## **Zergatik Kriminologia?**

Ez dakit esaten zergatik, baina beti jakin izan dut. Zalantzak izan ditut Zuzenbidearen, Psikologiaren, Kazetaritzaren eta Kriminologiaren artean, baina azken hori beti iruditu izan zait gustatzen zaizkidan gauzak bateratzen dituen zerbait. Uste dut gizartearen gauza itsusienak ulertzen lagun dezakeen zerbait dela.

## **Filmek eta telesailak eragina izan dute kriminologia ikusteko daukagun moduan?**

Bai, asko. Kriminologia ikasten dudala esaten dudanean poliziarekin edo *CSI* telesailarekin lotzen naute, eta ez dakit zer den okerragoa. Gure lana ez da hori. Horrek eragin du kriminologia ikustea berez denaren % 10a balitz bezala: hilketak, kontu ilunak... Gaur egungo gizarteko problema handienetan parte hartzen dugu edo hartu beharko genuke, baina hori jendeak ez daki, eta pentsatzen du hilketak aztertzen egoten garela.

## **Zer da benetan kriminologia?**

Labur esanda, krimenaren prebentzioa, horren interbentzioa eta politika kriminala. Hau da, gizartearen arauak, portaerak edota krimenekiko joerak. Aztertzen du krimenak ez gertatzeko, gutxiago gertatzeko edo gertatzen direnean nola aurre egin. Espainian ez, baina beste herrialdeetan, esaterako, edozein politika kriminal onartu aurretik kriminologoaren eskuetatik pasatzen da. Sexu hezkuntzarekin gabeziak ditugu, eta gauza bera gertatzen da Zuzenbidearekin eta krimenekin.

## **Belgikan izan zinen Erasmus beka bati esker. Zer moduz?**

Bizitzan hartu dudak erabaki onena izan da. Lekuagatik izan daiteke, ikasleentzat egokitutakoa delako: gaeuz parranda giroa, merkea... Gainera,

fakultate hori Europako onenatarikoa da kriminologiaren arloan, eta prestigioa du curriculumean hori izateak. Hala ere, ikasketak aldetik nahiko zaila izan da, asko ikasi behar izan dut. Hemengo unibertsitatearekin alderatuta, jabetu nintzen kudeaketa aldetik tamalgarria dela EHU.

## **Zer lan egitea gustatuko litzaizuke?**

Konplexua da galdera hori. Ez dakigu zer irteera izan dezakeen. Psikologoek eta langile sozialek dute gure lana. Gure profila ez da existitzen lan arlo gehienetan. Ikasten hasi nintzenean hilketen ikerketek erakartzen ninduten, baina hori hemengo lan mundura itzultzen baduzu, polizia arri gara. Belgikan ikasiko banu ez dakit nahiko nukeen, baina Euskal Herrian jaio naiz, hemen ikasi dut, hemen sozializatu naiz, eta ez dut polizia izan nahi. Eskaintzen dizkiguten praktika gehienak Ertzaintzara bideratuta daude. Kartzelan, adin txikikoaren zentrotan batean edo psikologiaren arloan lan egin nahiko nuke. Legearekin edo politikarekin lotuta egin nahi dut lan.

## **Zer ikasgai izan dituzu?**

Gehienbat Zuzenbideari lotutakoak. Penala, zibila, administratiboa... Psikologia eta psikopatologiak ere bai, Soziologia, medikuntza legala... Erasmusen, berriz, ikasgai sozialak izan ditut.

## **Justizia Sozialagatiko Klinika Juridikoan hautatu zaituzte.**

Bai. Fakultateko ikasleek formazio teoriko handia dugu, baina errealitatearekiko konexioan gabeziak ditugula eta sortu zuten klinika juridikoa. Urtero fakultateko hamar ikasle hautatzen dituzte, eta zerrenda horretan nago ni. Kriminologiako bakarra naiz, gainerakoak masterretakoak eta doktoreak dira. Formazio estra bat ematen digute. SOS Arrazakerian egin behar ditut praktikak; haiek bideratu naute. Gradu Amaierako Lana ere klinika juridikoaren bidez egingo dut: diskriminazioarekin lotutako kasuak emango dizkirate, eta hortik abiatuta egingo dut proiektua, era berean, klinika juridikoari ekarpena eginez. ■■■■



## Alex

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

Naturaren haserrealdiei gizonen eta emakumeen izenak jartzen dizkiete, borraskek, haizeteek, euri zaparradek izenak beharko balituzte bezala. Orain gutxi Barbara borraska izan genuen gainean; aste batzuk lehenago Alex. Halakoetan etxean gordetzeko eskatzen digute, zaintzeko, arrisku egoera ekiditeko. Badira, ordea, ekaitzaren erdian egonda ere beraien zaletasunari irtenbidea eman nahi diotenak, eurite eta haize zaparraden artean bada ere. ■■■

### **Datu teknikoak:**

*Kamera: Nikon D750*

*Objektiboa: Sigma 70-200 mm  
f2.8*

*Foku distantzia: 105 mm*

*Diafragma: f2.8*

*Obturazio abiadura: 1/800 seg.*

*ISO: 1000*

**@arnaitzrubiofoto**







# Zumaian hazi eta bizi

**Z**umaian bizi nahi dugu” dio Zumaiaiko Etxebizitza Asanbladak. Seguru askoren nahia dela eta lema bere egiten dutela herriko gazte askok. Asanbladak ateratako idatzian, argi eta garbi adierazten zen Zumaiaiko gazteen emantzipatzeko nahia eta errealitatea ez zetozeela bat, okerrera egiten ari diren arrazoi ezberdinengatik. Egoera ikusita, posible al da Zumaian bizitzea? Posible balitz, zer baldintzatan?

Hasteko, gazteen gehiengoak ezinezkoa du etxebizitza baten jabe izatea, eta horren ondorioz alokairu edo hipotekan sartzera behartuta daude. Asanbladak argitaratutako datuen arabera, zumaiaiar gazteen diru sarrerak batez beste 1.070 eurokoak dira hilero eta alokairuaren prezioa 750 eurokoa da, gutxi gorabehera, hileroko soldataren

erdia baino gehiago alokairuan gastatzera behartuta dago emantzipatu nahi duen edozein (alokairuaz aparteko gastuak kontuan izan gabe).

Garestiak ez ezik, alokatzeko dauden etxebizitza zerrenda ere ez da oso luzea. Gero eta etxe gehiago espekulaziorako erabiltzen dira Airbnb eta Booking bezalako plataformetan, Zumaiaik izan duen turismo gorakada baliatuz, epe laburrean diru kantitate handiena ateratzeko. Adibide garbia da Zumaian 70 etxebizitza turistiko inguru daudela, horietatik ia erdiak legez kanpo eta erregulatu gabe. Zumaiaiko etxe bakoitzean batez beste hiru pertsona bizi dira; beraz, pisu turistiko hauek 210 gazte emantzipatzeko aukera emango lukete, prezio arrazional batean jarriko balira.

Aurten, Amsterdameko hainbat eremutan Airbnb debekatu omen dute; erabaki ona, hemen ere horrelako zerbait egin beharko litzateke, baina Zumaia osoan aplikatuta. Etxebizitzekin espekulatzan dutenak kanpora!

Asanbladako partaideon burutan dagoen beste kezka handi bat da gaur gurean dugun pandemia honek eskutik dakarren krisiak gizartean izango duen eragina. Hainbat eta hainbat familiaren egoera ekonomiko kaxkarrak ekar dezakeen etxegabetze prozesuen ugaritzeak arduratzen gaitu.

Egoera horiei irtenbidea jartzeko saiakera bat egiten ari gara asanbladako partaideak. Herrian etxebizitza zein eraikin huts ugari dago, eta saiakera bat egin nahi dugu alternatiba

## HAUXE BAI JENEROA!





ezberdinak mahai gainean jarritz, herritar guztiek etxebizitza duin bat izateko aukera izan dezaten.

Oreretan eta Tolosan etxebizitza komunitarioak eta Errekalear auzo askea, esaterako, Euskal Herrian merkatu kapitalistaren eskemetatik ateratzen diren eredu ezberdinak dira. Asko dira aipatu gabe utzi direnak eta asko etorkizunean aipatuak izango direnak. Zumaian zergatik ez?

Etorkizuneko herria eraikitzea zumaia arron eskuetan dago. Denon lana da herri bizi eta jasangarri bat eraikitzea, eta gure ustez etxebizitza turistikoak jarri edo etxebizitzarekin espekulatzen dutenek ez diete inongo mesederik egiten etorkizuneko Zumaia, besteak beste,

gazteok etxebizitza Zumaia kanpo bilatzera behartzen gaituztelako. Gure etorkizunak zuen aberastasuna baino gehiago balio du!

Amaitzeko, Zumaia errealtatean kokatu beharra dago. Posible al da okupazioa? Badago baldintzarik etxebizitza komunitarioa egiteko? Pisu turistikoak erregulatu behar dira? Galderak asko, eta erantzunak ere bai. Lana eginez gero posible da zerbait polita ateratzea. Horretarako dago Zumaia Etxebizitza Asanblada, poliki-poliki eta isilpean lanean, gazteak pozik ez dauden seinale. Jendeak mobilizatu egin behar du, etxebizitzaren arazoa Zumaia gazteen ahotan jarri, denon artean irtenbide bat bilatu!

ZUMAIAN BIZI NAHI DUGU! ■■■

## ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

## Gure kulturari

**O** hartu naiz iazko udazkenean ere antzeko lerro sorta bat idazten aritu nintzela, urriko aldizkarirako kasu hartan. Ohikoa izaten den “*Ño, gauzak ez dira ba asko aldatu ordutik*” hori albo batera utzi beharko dut gaurkoan, majo irauli baita errutinaren oinarri den normaltasuna; *lehengoa* izatetik *berria* izatera, hain zuzen ere.

Lehen “normala” zenak ez du kabidarik egunotan, eta musukoen egileek eguneko ogia ontzen dutenek baino eskaera gehiago jasotzen dituzte. Antzokien eta plazen edukiera ere nabarmen murriztu da. Antza, konfinamendu garaian hainbeste onura eta ordu elikatu dizkigun kultura jada ez da segurua batzuentzat, distantzia zabalak eta musukoak behar bezala jantzita eduki arren. “Bertan beheratik, bertan behera” dabilzala idatzi du oraintsu Ane Labaka bertsolariak Twitterren, eta antzara jokoak bailitzan, badirudi dado baten esku dagoela kulturaren etorkizuna.

Donostiako ehunka hotel berriek sumatuko dute Euskal Herriko antzokiek adina bakardade. Pena gutxi ematen dit lehenak, kezka eta ardura sortzen dit bigarrenaren egoerak. Kultura segurua da, eta kultura behar dugu. Ahal den heinean bete ditzagun plazak, txalotu ditzagun aktoreak eta eutsi diezaiozun izana ematen digun horri, gure kulturari. ■■■



# "Sekulako aukera daukagu hemen geologia eta kultura elkarri lotuta esplikatzeneko"

**LEIRE BARRIUSO ETA ASIER HILARIO** GEOPARKEKO KUDEATZAILEA ETA ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Hamar urte bete berri ditu Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Egindako lanaz eta aurrera begirako erronkez eta egitasmoez hitz egin digute Leire Barriusok eta Asier Hilariok.

Testua: **Gorka Zabaleta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

**N**ola sortu zen Geoparkea eta zertarako? **Asier Hilario:** Geoparkearen hazia 2000ko hamarkadan koka daiteke. 2005ean Algorri Interpretazio Zentroa ireki zen Zumaian, apustu bat egin zuen Zumaiaiko herriak bere natur ondarea balioan jartzeko; hasi ginen ikastetxeekin lan egiten, bisita gidatuak eskaintzen. 2009an Biotopo Babestu izendatu zen Zumaia eta Deba arteko kostaldea eta haitz haiei lege babesa eman zitzaizen lehen aldiz. Gainera, ordurako, Zumaia, Deba eta Mutriku elkarlanean ari ziren flyscharen inguruan gauzak eskaintzen, Flyscharen ibilbideak ere turismo saria jaso zuen... Beraz, pausoz pauso joan ginen hemen zegoen natur ondare oso garrantzitsua babesten eta balioa nabarmentzen, eta bide horretatik iritsi ginen Geoparkea sortzera.

**Leire Barriuso:** Ingurune hau nahikoa ezezaguna zen kanpotarrentzat eta 2002an,

Geoparkea sortu aurretik, hasi ziren ibilbideak-eta antolatzen Zumaia eta Deba artean. Ordurako ikusi zen turismoa garatzeko baliabide ona izan zitekeela. Bisitek arrakasta zutela ikusita, geoparkearen aukera jarri zen mahai gainean. Ondorioa izan zen oinarri sendoak zeudela geoparke izendapena eskatzeko eta aurrera egin zen egitasmoarekin. Zertarako den geoparke bat? Garapenerako tresna bat da, ondare geologikotik abiatuta. Unescoren babespean sartzeak ere nazioarteko dimentsioa eman zion sareari eta, turismoaz gain, zientziaren, kulturaren eta hezkuntzaren ildoak garatzeko bidea.

**A. H.:** Lurralde hau osatzen duten hiru udalerriak mapan kokatzea zen hasierako helburuetako bat, agerikotasuna ematea. Eta geoparkeen ereduaren aldeko apustua egin zen, Euskal Herrian eta inguruan erabat berria zen eredia. Hamar urte hauek erakutsi dute asmatu egin zela, ez soilik inguru hau ezagutzera



emateko, baita hiru udalerrien arteko elkarlana bultzatzeko ere.

### **Zer da geoparke bat eta zer ez da? Biotopo Babestua eta Geoparkea oso batera etorri ziren...**

**A. H.:** Deba eta Zumaia arteko Biotopo Babestua da babeserako eta kontserbaziorako legezko figura bat. Jaurlaritzak izendatzen du eta Aldundiak kudeatu. Horren helburu nagusia da flyscharen balio geologikoa eta marearteko gunearen balio ekologikoa eta hor gertatzen diren prozesu natural guztien babesa eta kontserbazioa. Horretarako arau batzuk daude. Hori da Biotopo Babestua. Zer da Geoparkea? Geoparkea da ideia on bat: bertan dagoen ondarea baliatzea tokian tokiko garapena bultzatzeko, zientzia, hezkuntza, turismoa, kultura sustatuz, tokiko eragileen arteko elkarlana bultzatuz. Geoparkea da, azken finean, garapenerako tresna bat da, eta lan egiteko eredu bat.

### **Zeinek osatzen dute Geoparkea?**

**L. B.:** Mutriku, Deba eta Zumaiako udalak izan ziren hiru sortzaileak, eta Geogarapen elkarteak sortu zuten proiektua garatzeko. Gero batu ziren Aldundia, Jaurlaritza, Debegesa eta Urola Kostako Udal Elkarteak, Urkome eta Debemen landa eremuko bi agentziak, eta Aranzadi eta Unesco Etxea elkarteak. Unibertsitatearekin ere hitzarmen marko bat daukagu, harreman estua, eta hainbat proiektu gauzatu ditugu elkarrekin.

**A. H.:** Nazioarteko saretik egiten zaizkigun ebaluazioetan beti ondo baloratu dute gure geoparkean daukagun kudeaketa ereduak. Geoparke bateko kudeaketan parte hartu behar dute lurralde horretan eragile diren erakunde guztiek, eta hori oso ondo lortu da gurean. Hiru udalak dira liderrak, baina gero kide guztiek dute lanerako eta beraien ekarpena egiteko lan esparrua oso ondo definituta, denek dute eroso sentitu eta lana jarrera positiboarekin lan egiteko aukera.

### **Nola dago osatuta Geoparkeko lan taldea?**

**L. B.:** Hasieran Geoparkeak ez zeukan egitura propiorik eta Debegesatik kudeatu zen. Horrek martxa hartu zuenean eta nazioarteko sarean onartu gintuztenean ikusi zen egitura propioa behar zuela. Orduan ni kontratatu ninduten zuzendari-kudeatzaile lanak egiteko. Asier Hilarioren kontratazioa izan zen Aldundiaren ekarpena, ordurako Biotopo Babestuaren zuzendari zientifikoa zelako eta bere kompetentziak Geoparkera zabaltzea aukera ona zelako. Segituan ikusi genuen komunikazioaren



arloa indartzeko beharra eta hor beste bi lagun ari dira lanean. Turismoari dagokionez, hiru herrietako turismo bulegoek egiten dute lan hori. Hezkuntzaren lan ildoak izan da indartu dugun azkena eta hor koordinatzaile lanak egiten dituen beste figura bat sortu da, ingurumen eta hezkuntza koordinatzailea. Gure helburua beti izan da ez bikoiztea lanpostuak, hiru udaletako teknikariak inplikatzea beraien esparruetan.

**A. H.:** Badaude munduan geoparkeak 35 langile dauzkatenak; adibidez, gidari guztiak geoparkeko langile direnak. Ez da hori gure ereduak. Gure helburua da egitura txiki batekin lurralde honetan dinamika sortzea bertan proiektuak sor eta gara daitezzen.

### **Zer balantze egiten duzue hamar urte hauetan egindako bideaz?**

**L. B.:** Dudarik gabe, geoturismoa erreferente bihurtu da. Duela hamar urte eskaintza oso mugatuta zegoen uda partera eta bisita jakin batzuk baino ez ziren eskaintzen. Excel orri batekin eta telefono batekin kudeatzen zen



**"GEOPARKEA DA, AZKEN FINEAN,  
GARAPENERAKO TRESNA BAT DA,  
ETA LAN EGITEKO EREDU BAT"**

**"GURE HELBURUA DA EGITURA TXIKI  
BATEKIN LURRALDE HONETAN  
DINAMIKAK SORTZEA"**

**"ORAINDIK FALTA ZAIGU BERTAKO  
HERRITARREK GEOPARKEA BERENA  
SENTITZEA"**

orduan. Gaur egun daukagun eskaintza oso konpletoa da. Horrek ekarri ditu bisitari asko, kontratazio asko turismo aldetik... Hori da gehien ikusi dena, kanpora begira egiten delako. Baina beste lan batzuk ere egin ditugu. Zientzia ikerketa egin da, ondarearen kontserbazioan lan egin da, eta sentsibilizazioan eta dibulgazioan lan handia egin dugu. Eta eman ditugu lehen urratsak aurrera begira garrantzitsuak izango diren ildoak martxan jartzeko. Hezkuntzarekin bizpahiru urte daramatzagu lanean baina oraindik lan asko daukagu egiteko. Gauza asko egin ditugu eta erronka berriak sortu dira.

**Eta zertan gelditu da hankamotz, non ikusten duzue gabezia handiena?**

**L. B.:** Lan handia daukagu egiteko herritarrekin, herritarren partaidetzarekin eta inplikazioarekin. Hor lan asko dago egiteko. Antolatuta dauden elkarte eta taldeengana errazago iristen gara, baina hor badago zeregina. Ikusten da oraindik batzuek ez dutela Geoparkea bere osotasunean ulertzen. Batzuentzat Geoparkea da flyscha,



kostaldea, harriak. Hor badago lan bat egiteko, azaltzeko zer den Geoparkea eta parte har dezaten.

**A. H.:** Geoparkea kanpokoentzat den pertzepzio hori badago. Zorionez, gero eta jende gehiagok ulertzen du Geoparkeak barrura begira ere egiten dituela gauza asko eta, berez, hori dela helburu nagusia. Ikusten ari gara antolatzen ditugun ekintzetan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela, baina oraindik falta zaigu bertako herritarrek Geoparkea berena sentitzea, herrien garapenerako tresna egokia dela ikustea, modu ezberdinetan. Garapena uler daiteke ikuspegi ekonomikotik, eta hor Geoparkeak egin behar du bere ekarpena; baina garapena ulertu behar da, baita ere, bertako ondare, kultura, historia edota nortasunaren balioa azpimarratzea dela, zure ingurunea hobetu ezagutu, ulertu eta maitatzeko. Geoparkeak horretarako tresna garrantzitsua izan behar du. Estrategiak izan behar du ondare geologikoa kultur ondarearekin lotzea eta elkartuta aurkeztea eta esplikatzeko. Kultur ondarea oso lotuta baitago tokiko geologiarekin.

Adibidez, olagarroaren kultura daukagu sekulako harraldea eta marearteko gunea dauzkagulako. Eta zergatik daukagu halako marearteko gunea? Flyschak leku horretan daukan konposizioagatik eta gertatu den higaduragatik. Beraz, geoparke batek gai izan behar du esplikatzeko nola lurraldearen ezaugarri geologikoei baldintzatzen duten beste guztia: gure kultura, ekonomia, nortasuna...

**Aurrera begira, non jarriko dituzue zuen indarrak?**

**L. B.:** Ondare geologikoarekin batera, kultur ondare aberatsa daukagu gure geoparkean. Historiaurrea, itsas ondarea eta euskara izango dira aurrerantzean guretzat lan ildo garrantzitsuak. Hiru herriak daude kostaldean eta hirurek dute lotura oso estua itsasoarekin. Mutriku arrantzari lotuta, Deba merkataritzari eta Zumaia gehiago ontzigintzari. Guk hori ezin dugu ahaztu, hiru herriak lotzen dituen garapenerako aukera bat bada. Hor ez gara izango gu liderrak. Ikusi beharko dugu nortzuk ari diren horretan lanean eta sinergiak lortu.

**A. H.:** Eta historiaurrea da Geoparkeak daukan altxor ezkutueta bat. Jende gehienak ez daki historiaurrean Deba bailarak daukan potentziala. Hogei aztarnategi arkeologiko baino gehiago daude, eta ematen digu aukera ulertzeko nolakoa izan den gizakiaren eboluzioa azken 200.000 urteetan. Hori guztia espazio hain mugatuan edukitzea oso berezia da. Gizakien bizimoduaz gain, kontatuko dugu nolakoa zen ingurune hau garai bakoitzean, zer bilakaera izan duten klimak, landarediak, basoek, non zegoen itsasoa... Geologia, arkeologia eta kultura elkarri lotuta lantzeko eta esplikatzeko sekulako aukera daukagu hemen. Eta oso gutxitan egindako lana da.

**Eta hori guztia gauzatzeko proiektu zehatzik ba al dago?**

**L. B.:** Bai, aurreproiektua Zaragozako enpresa bat ari da amaitzen. Amaitu bezain pronto, faseka jarriko dugu martxan. Hainbat aktuzio egingo dira, osagarriak denak. Aurten lehen fasearekin hasiko gara. Debatik ateratzen den ibilbide bat izango da, momentuz, Sasiolako begiralekuraino. Helburua da Praileaitzeraino eta Ermitiaraino luzatzea, haiek prestatzen direnerako.

**Eta hemendik hamar urtera nola imajinatzen duzue Geoparkea?**

**A. H.:** Kontu zehatzak aipatzeko, adibidez, historiaurreko proiektua ordurako guztiz amaituta eta sendotuta egongo dela espero dut. Gaur egun

Geoparkeak badauka produktu bat, Flyscha, mundu guztiak ezagutzen duena. Hamar urte barru historiaurrearekin lotuta ere erreferente izan beharko litzateke, gutxienez Euskal Herri mailan. Hezkuntzan ere uste dut errotuago eta zabalduago egon beharko ginatkeela gure hezkuntza sistemako ikastetxeetan. Flyscharen aldetik, uste dut gehiena egina dagoela, ez dut uste asko aldatuko denik. Eta azkenik, nahiko genuke herritarrak eta Geoparkea elkarrengandik gertuago egotea. Baina hori guk lortu beharreko zerbait da.

**L. B.:** Gobernantza aldetik ere nahiko genuke herrietako elkarten partaidetza erraztea eta bultzatzea. Eta kanpora begira, gure erreferentzialtasuna indartzea da gure nahia. Ondare geologikoaren balioa azpimarratu nahi dutenekin elkarlana sustatu nahi dugu.

**Geoparkeena nazioarteko sarea da. Hamar urte hauetan, zer leku egin du Geoparkeak mapa horretan?**

**A. H.:** Hori ez dago ondo guk esatea, baina gurea, txikia izanik, sareko erreferente bihurtu gara munduan. Hala aitortzen digute Unescotik eta saretik bertatik. Geoparke izan nahi duten askok

gugana jotzen dute gure esperientzia ezagutzera. Sarean oso ondo ikusiak gaude.

**L. B.:** Gure kudeaketa eredia oso esportagarria da. Askotan buruhauste handiena da nork kudeatuko duen Geoparkea. Badaude batzuk gure eredia jarraitu dutenak. Sarri etortzen dira bisitan gure geoparkea ezagutzera, edo gonbidatzen gaituzte gure eredia azaltzera.


**A. H.:** Hori lortu dugu gauzak ondo egin direlako, baina baita ere gure nazioarteko proiektzioa indartu nahi izan dugulako. Bertan lan egiteaz gain, kanpoan dauden erakundeetan egon behar da zure lanaren berri emateko. Egiteaz gain, egindakoa erakutsi behar da.

**Ondare Geologikoaren Nazioarteko Batzordearen presidente izendatu zaituzte, Asier, lau urterako.**

**A. H.:** Bai, aurrez esandakoaren emaitza da. Hemen hamar urte hauetan egin dugun lan onaren errekonozimendua da. Aukera oso ona da guretzat nazioartean gure geoparkea oraindik ere gehiago ezagutarazteko.

**L. B.:** Guretzat ona izango da, bai horixe. “Basque Coast Geopark” oso ezaguna da nazioarteko batzarretan, asko aipatzen gaituzte. ■■■





# Elkarrekin bidea urratzen

**E**uskarazko hedabideen loraldia 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran eman zen Euskal Herriko hainbat txokotan, baita Urola Kostan ere. Azken mende laurdenean lan ugari eta oparoa egin dute eskualdeko tokiko hedabideek, jende askoren ahaleginari esker. Horren erakusle da herritarren zati handi batentzat tokiko hedabide horiek izatea informazio iturri nagusia gaur egun.





Erraz esaten da, baina eskualdeko tokiko hedabideek 25 urteren bueltan daramatzate informazioa zabaltzen, herritarrak informatzen. Urte guztiotan, baina, aldaketa handiak izan dira bai gizartean, bai komunikazioaren arloan. “Teknologiak etengabeko garapena izan du, eta komunikazioaren digitalizazioak nahiz sare sozialek erabat aldatu dute informatzeko modua. Paperetik Internetera egin zen jauzia duela urte batzuk, eta euskarri berriak ere sortu dira; eta euskarriari lotuta etorri dira behar eta aukera berriak ere”, adierazi du Nerea Uranga Uztarriaren eta Urola Kostako Hitzaren hastapenak ondo ezagutu zituen kazetariak. Dena den, euskarazko tokiko hedabideek egin dute ahalegina egoera berrietara egokitzeko, gorpil horretan sartzeko, eta gaur egun duten hedapena da horren adierazle nagusia.

Hala eta guztiz, eskualdeko herrietan ondo errotuta dauden Urolako Komunikazio Taldeko hedabideek zailtasun nabarmen batekin egin izan dute topo beren ibilbidean: egitura txikiak izanik, beharrei erantzuteko eta aukera berriak aprobetxatzeko nahikoa gaitasun ez dute izan. “Horren eraginez, herrian lortutako erdigunea galtzeko arriskua edo mehatxua agertu da joera berri horien aurrean”, azaldu du Gorka Zabaleta Baleikeko sortzaile izanak eta UKTko zuzendari nagusiak.

Urteak pasatu ahala jabetu dira Urola Kostako hedabideak: elkarlana da bidea. Banakako txikitasunaren ezinak gainditzeko aukera paregabea da elkartzea. Erronka ere bada; izan ere, gauza bat da



Nerea Uranga erredaktoreburua



elkarlanaz hitz egitea, eta bestea elkarlan hori praktikan jartzea. Hala azaldu du Urangak: “Erakunde bakoitzak bere ohiturak, dinamikak, antolaketa eta abar ditu, eta horiek denak uztartzea lan konplexua da. Denbora eskatzen du halako prozesu bat hasteak: lagun berriak ezagutu, konfiantza giroa sortu, beldurrak eta kezak uxatu, eskuzabal jokatu... Adostasunerako prestutasunak berarekin dakar amore ematen jakitea”.

Urola Kostako tokiko hedabideona ez da apustu makala izan. Elkarlanaz haratago joan eta bat egitea erabaki dugu, egitura eta lantalde bakar batean antolatuta. Lehen Karkara, Baleike, Uztarria, Maxixatzen, Erlo Telebista eta Urola Kostako Hitza ginenak, Urolako Komunikazio Taldea (aurrerantzean, UKT) gara orain. Tokian tokiko markak eta produktuak mantendu dira, herrietako elkarteek ere bizirik jarraitzen dute, baina sei komunikazio proiektu solteren lekuan, komunikazio proiektu sendo bat aurki daiteke orain.

“Egitura bakar batean antolatzeari garrantzia handia eman diogu UKTko kideok; izan ere, egiturak berritzeko, sendotzeko eta profesionalizatzeko bide eraginkorrena horixe dela uste dugu. Lantalde bakarrean biltzeak aurrera begirako ikuspegia landuko duen zuzendaritza taldea osatzeko eta antolatzeko aukera eman du, baita kudeaketa profesionalizatzeko, langileak espezializatzeko eta lana modu eraginkorragoan antolatzeko ere. Horren guztiaren helburu nagusia zera da: herritarrei zuzendutako komunikabideak sendotzea eta garatzea”, zehaztu du Zabaletak.

Egiturak eta lantaldeak bateratu izanagatik, baina, UKTren helburua ez da herriz herriko produktuak argitaratzeari uztea eta soilik eskualde mailakoak sortzea. Herrietako markak altxorra dira, eta horien gainean eraikiko du kooperatibak aurrera begirako eskaintza guztia. “Aldaketak etorriko dira, formula berriak ere bai, baita tokiko hedabideak batzen dituen marka komuna ere, baina herriz herri sustraitutako proiektuek sendo jarraituko dute. Eta orain arteko gisan, bi izango dira gure egitekoaren ardatzak: tokiko informazioa eta euskara”, adierazi du Urangak.

Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da UKT. Horixe iruditu zaigu egitasmo berriarentzat jantzirik egokiena. Batetik, gure hedabideek elkarte bidez izan duten izaera sozialari eusteko; eta bestetik, hedabideetako motor izan diren langileek erabakietan parte-hartze zuzena izan dezaten.

Aurrerantzean, informaziorako eta komunikaziorako tresna are indartsuagoa izango dute eskura Urola Kostako herritarrek, herritik eta herriarentzat sortua, komunikazio burujabetza hain estrategikoa bihurtzen ari den garai hauetan. “UKT osatzen dugun sei hedabideok eta langileok pauso bat egin dugu aurrera, eta gure komunitatearen babesa eta erakundearen hauspoa ezinbestekoak izango dira egitasmoak bide oparora egin dezan”, esan du Zabaletak.



Leire Larrañaga publizitate eta zerbitzu arloko koordinatzailea

## Sortuta, martxan

"Kooperatiba iazko ekainean sortu genuen Uztarriak, Maxixatzenek, Baleikek, Karkarak, EKT-k (Hitza) eta Infosarek (Erlo Telebista), ia hiru urteko lan prozesu baten ondorioz. Lehen urteko helburu nagusia barne antolaketa izan da, baina eskaintzan ere ikusi dira emaitzak". Hala jakinarazi du Leire Larrañaga UKTko arlo komertzialeko zuzendariak. Izan ere, hainbat produktu berri egin dira. Beste hainbat aldaketa ere egin dira euskarrietan, baita lan egiteko moduan ere.

UKT talde multimedia bat da; hau da, hainbat informazio euskarritan egiten du lan: papera, Internet eta telebista. Azpeitiko Uztarria, Azkoitiko Maxixatzen, Orioko Karkara eta Zumaiako Baleike aldizkariak hilabetekariak dira, eta eskualde osoko ikuspegia duen egunkari bat ere kaleratzen du kooperatibak: Urola Kostako Hitza. Horiek guztiak webgune bana daukate, eta Zarautzen ere bada atari digitala: Zarauzkohitza.eus. Gainera, eskualdeko telebista bakarra ere UKTrena da: Erlo Telebista.

Lan egiteko moduan, ekoizpenean, eman da aldaketa handiena, Aiora Larrañaga Orioko erredaktoreburuaren ustez: "Formatuz aldatu dira Karkara, Maxixatzen eta Uztarria aldizkariak. Gaur egun denak antzeko formatuan argitaratzen dira, tokian tokiko errealitatera eta gaietara moldatuta, baina lau hilabetekariak edizio sistema profesional berarekin egiten dira. Gainera, egiteko moduan ez ezik, mamian ere jarri da arreta azken hilabeetan, eta hainbat atal aldatu eta osatu egin dira".

Interneten ere plataforma digital berberarekin argitaratzen dira gaur egun Karkara, Zarauzko Hitza, Baleike, Uztarria eta Maxixatzen. Berritzen azkena Uztarria.eus izan da, eta aldaketak erantzun oso ona izan du herritarren artean. Interneteko atariak duten harrera ikaragarria izan du hizpide Andoni Elduaie kazetari azkoitiarrak: "Papereko edukiak herritar ugarik irakurtzen dituzte, zorionez harpide kopuru sendoa dugu eskualdean, baina azpimarratzekoa da Interneteko atariak daukaten indarra". Ikaragarriko harrera dute tokian tokiko webguneek, eta horren



Andoni Elduaie kazetaria



Aiora Larrañaga erredaktoreburua

erakusle dira estatistikak: “Tokiko hedabideen artean liderrak gara, eta Hekimen elkarteko hedabide guztien bisita kopuruaren zerrendan bigarrenak –gutxi gorabehera, 800.000 bisita dituzte UKTko webguneek hilean–. Horrek esan nahi du Uztarria.eus, Maxixatzen.eus, Karkara.eus, Zarauzkohitza.eus eta Baleike.eus informazio iturri nagusi direla beren herrietan”. Esparru gutxitan erakusten du euskarak horrelako lidertza, eta UKTrentzat oso garrantzitsua da emaitza horiek izatea, etorkizuna eremu digitalean baibaitago.

Ikus-entzunezkoen arloa indartzeko ere urratsak egin ditu UKTk. Horren erakusle dira, Gorka Eizagirre telebistako teknikariaren arabera, honako emaitza hauek: “Telebistako lantaldea osatu dugu, kazetaritza lanak egiten ari gara ikus-entzunezko formatuetan eta eduki gehiago ekoizten ere bai webguneetarako eta telebistarako. Lan horiek guztiak ondo antolatutako eta herrietako bulegoetan banatutako erredakzio talde bakarretik egiten dira gaur egun”.

Marketin taldea ere antolatuta dago; eskualdeko herrietako merkatariei ahalik eta zerbitzu onena eskaini ahal izateko eratu eta moldatu da arlo hori. Zerbitzuen katalogoa osatuta dago jada, eta UKT prest dago bezeroek behar dituzten zerbitzuak eskaintzeko. “Publizitatea egin nahi dutenentzat komunikazio taldeko euskarriak dira erakusleleho onenak, herritar gehienengana iristeko gaitasuna baitute. Eta orain, gainera, gure eskaintzaren eremua zabaldu egin da: edukiak herrian, eskualde osoan edo Euskal Herrian zabaltzeko bideak eta bitartekoak ditu UKTk”, azaldu du arlo

komertzialeko zuzendariak. Publizitateaz gain, baina, komunikazio zerbitzuak ere eskaintzen ditu taldeak: argitalpenak, diseinu lanak, ekitaldien antolaketa, streaming bidezko emanaldiak, bideo lanak, marketin digitala... Eskualdeko merkatariei, enpresei, elkarreei edota erakundeei laguntzeko prest dago UKT.

Talde multimedia ez ezik, transbertsala da UKTrena. “Lantalde handi batek osatzen du kooperatiba, eta arloz arlo antolatutako taldetxoak izanagatik, proiektuka egiten dugu lan. Elkarlana da gure oinarria, horrela soilik lor baitaitezke helburuak. Taldearen garrantzia oso barneratuta dugu UKTko kideok, pertsonak egiten baitute taldea, pertsonak baitira proiektu honen erdigunea”, azaldu du Aiora Larrañagak.



Gorka Eizagirre telebistako teknikoa


## Etengabe berrituz

Herritarren informazio eta komunikazio beharrei ahalik eta ondoen erantzutea da Urolako Komunikazio Taldearen helburu nagusia. Horrek, ezbairik gabe, eskaintza osatzea eta berritzea eskatzen duela adierazi du Zabaletak. “Orain arte egindako gisan, berrikuntzak egingo dira euskarri guztietan, baina aurrerapauso handienak, dudarik gabe, arlo digitalean nahiz ikus-entzunezkoetan egingo ditu komunikazio taldeak datozen urteetan”.

Bide horretan sostengu izugarria dira herritarrak, eta hala izaten segi dezaten nahi du UKTk. Izan ere, irakurleen eta bazkideen babesik gabe ezinezkoa zatekeen gaur dagoen lekura iristea. “Eskualdeko proiektuarekiko atxikimendua sustatzeko formula berriak aztertzen eta prestatzen ari gara, orain arte tokian tokiko elkarteetako bazkideei, argitalpen jakinetako harpideei eta batuko diren lagun berriei ahalik eta zerbitzu onena emateko, bide horretan eskaintza hobetzeko”.

Garai zailak dira. Ez dago ukatzerik. Ikusi besterik ez dago COVID-19ak zer ekarri duen. Eta ekar dezakeenak ere kezka sortzen du; UTK ez da salbuespena. Baina sinergiak bilatu behar direla argi du Zabaletak: “Urolako Komunikazio Taldeak tokian tokiko komunitatearen, eragileen, taldeen, enpresen, merkatarien, ostalarien eta abarren bidelagun izan nahi du; izan ere, komunikazio taldeak badu horiek mundu digitalera jauzi egiteko eta mundu horretan ahalduzko estrategiak garatzeko gaitasuna”.

Finean, komunitateak, herritarrek, behar duten komunikazio tresna izan nahi du UKTk: “Denon eskura dago Urolako Komunikazio Taldea, denon beharrei erantzuteko prest”.



Gorka Zabaleta zuzendari nagusia



# Ilusioz beteriko lantaldea

Urolako Komunikazio Taldean 33 profesionalak egiten dugu lan Azkoitiko, Azpeitiko, Zumaiako, Zarauzko eta Orioko bulegoetan. Kazetari, diseinatzaile, marketin aholkulari, telebistako teknikari eta zuzendaritza taldeak osatzen dugu kooperatiba, eta gutako bakoitzak ilusioz heldu diogu erronka berriari.



**AINHOA CUENDE  
ZULAIKA**  
MARKETIN  
AHOLKULARIA



**AINHOA SUBINAS  
IRAOLAGOITIA**  
MARKETIN  
AHOLKULARIA



**AIORA  
LARRAÑAGA  
SOLABERRIETA**  
ERREDAKTOREBURUA



**AMAIA URBIETA  
ARRUTI**  
ERREDAKTOREBURUA



**ANARTZ IZAGIRRE  
ZUBIMENDI**  
KAZETARIA



**ANDONI ELDUAIEN  
SORALUZE**  
KAZETARIA



**ANE AZKUE HERNANDEZ**  
DISEINATZAILEA



**ANE OLAIZOLA ELORTZA**  
KAZETARIA



**ANGEL SARASUA  
LARRAÑAGA**  
MARKETIN AHOLKULARI  
ARDURADUNA



**ARITZ MUTIOZABAL  
ZABALA**  
KAZETARIA



**EGOITZ AZKOITIA  
ARANGUREN**  
MARKETIN AHOLKULARIA



**FELIX AZIPURUA ETXABE**  
MARKETIN AHOLKULARIA



**GORKA EIZAGIRRE  
GOIKOETXEA**  
TELEBISTAKO TEKNIKOA



**GORKA ZABALETA  
LOPETEGI**  
ZUZENDARI NAGUSIA



**IHINTZA ELUSTONDO  
LEUNDA**  
ERREDAKTOREBURUA



**IÑAKI MARTINEZ ALBIZU**  
DISEINATZAILEA



**IÑIGO GAITON  
GONZALEZ DE TXABARRI**  
KAZETARIA



**JUAN LUIS ROMATET  
MANTZIZIDOR**  
ERREDAKTOREBURUA



**JULEN IMAZ REGO**  
TELEBISTAKO  
ZUZENDARIA



**JULENE FRANTZESENA  
ZUBIZARRETA**  
INTERNETEKO  
ZUZENDARIA



**KRISTINA FERNANDEZ  
ZABALETA**  
ZERBITZU ARLOKO  
ERREDAKTOREA



**LEIRE ARROJERIA  
ARISTONDO**  
MARKETIN AHOLKULARI  
ARDURADUNA



**LEIRE LARRAÑAGA  
ALDALUR**  
PUBLIZITATE ETA ZERBITZU  
ARLOKO KOORDINATZAILEA



**LEIRE MARTIJA ZUMETA**  
MARKETIN AHOLKULARIA



**MAIALEN ETXANIZ  
CANTOS**  
TELEBISTAKO KAZETARIA



**MAILO OIARZABAL  
ODRIOZOLA**  
KAZETARIA



**MAITANE ELDUAIEN  
QUEIRUGA**  
SUSTAPEN ETA MARKETIN  
DIGITALEKO ARDURADUNA



**MARIA MAYA  
MANTEROLA**  
KAZETARIA



**MIREIA GALARZA  
BASTIDA**  
TELEBISTAKO KAZETARIA



**NEREA URANGA  
BASTARRIKA**  
ERREDAKTOREBURUA



**ONINTZA LETE ARRIETA**  
PAPERKO  
ZUZENDARIA



**URTZI OTEIZA ZABALETA**  
TELEBISTAKO TEKNIKOA



**UXUA OSTOLAZA EGAÑA**  
ZUZENDARI  
KUDEATZAILEA



# UKT begirada bakarrean

BALEIKE.eus 

 MAXIXATZEN 

AZKOITIA

uztarrria 



egunkari

1



telebista

1



kanalak sare sozialetan

21



aldizkariak

4



atari digitalak

7




39.760  
irakurle paperean  
hilero



21.413  
bisitak interneten  
egunero



# ZARAUZKOHITZA





# UKTko elkarte sortzaileak



**JOSU WALIÑO** BALEIKE

Eskualdeko hedabide nagusiek etorkizunera begira emandako urratsa sozioekonomiaren arloko hitzekin definitzeko, berrikuntza, elkarlana, sinergia, ekonomia soziala edo koopetizioa bezalako terminoak erabiliko nituzke. Baina UKTren sorrera definitzeko hitz horiek guztiak erabiltzeaz gain beste bat gehituko dut: ausardia.

Ausardia izan baita gure hedabideen ikurra urte hauetan guztietan, eta, oraingoan ere, etorkizunera begiratuta ausardiaz jokatu dugu, proiektu integrala garatuz elkarlanean. Baleike bezalako komunikabide soilak izatetik komunikazio talde berritzailea izatera pasa gara, euskaratik eta euskaraz mundura gertutik begiratuz.

Komunikazio digitalen garaian erraldioen lurraldean jokatzeko dagokigu eta zer hobe elkarlanean egitea baino. Elkarrekin lantalde, bazkide eta irakurle, denok bat eginda gainditu ahalgo ditugu etorkizuneko erronka berriak.



**ION ALDONONDO** ERLO TELEBISTA

Bailarako hedabide berriari guk telebista erantsi diogu: Erlo Telebista. Ez da lan erraza horrenbeste hedabide juntatu eta bakarra egiteko asmoa gauzatzea, baina ezaugarri garrantzitsuena eduki dugu: gogoia eta nahia etorkizuna hobetzeko. Gure proiektuak bizirik jarrai zezan arnas berria izan da kooperatiba. Eta horretarako gakoa izan da konfiantza. Umiltasunetik, bakoitzak berea defendatuz, baina baita bere onena eskainiz ere.

Dena den, proiektu eta enpresen atzean norbanakoak daude, pertsonak, eta benetan pentsatzen dugu hori dela gure indargune garrantzitsuena. Helburu jakin batekin arraunean denok alde berera egitea. Esku bete lan dugu honi guzti honi forma ematen, baina urtebete da hasi ginela, eta ez dakit zailena egin dugun edo egiteko daukagun, baina oinarria jarri dugu, sendo jarri ere, eta honek hobera egingo du. Ziur nago.



**RIKARDO UZKUDUN** KARKARA

Euskalgintzan txikian jokatzeraz ohituak gaude. Baliabide gutxiarekin eta borondate handiarekin, baina halabeharrez txikira. Holaxe jardun dugu gure herrietako hedabideok azken hamarkadetan. Bertatik bertarako informazioa emanez, sinesgarritasuna eta fidelitatea irabazi ditugu, eta erreferentzialtasuna ere bai esango nuke, neurri batean behintzat.

Gure eskualdeak, ordea, ikaragarriko potentziala du. Ia denak euskaldunak gara, kalean eta etxeetan nagusi da euskara, eta pantailetan ere nagusi izateko mundiala litzateke. Besteak beste, horregatik juntatu gara, indarrak metatu, profesionalizazioan sakondu, gure eskaintza hobetu eta euskarri guztietara zabaltzeko. Paperezko aldizkariak 20 urtetik gora dituzte, heldutasun betean daude, eta haundira jokatzen hasteko garaia da.

Lasai irakurle, badakizkigu zeintzuk diren eta gure kartak: tokiko edukiak, herri izaera eta euskara.



**IDOIA ALBERDI** MAXIXATZEN

Erabiltzailearen egungo beharrei erantzuteko gauza izango den egitura sortu beharra geneukan; baliabideak batu eta optimizatu, egungo plataformetara egokitutako kalitatezko gertuko informazioa eskaintzeko. Azken batean, langileen lan baldintzak duintzeko eta garapen profesionalerako atea da UKT. Beraz, produktuaren zein langileen garapen profesionalari begira hartutako erabakia izan da kooperatiba sortzea.

Tokian tokiko hedabideok urteetako esperientzia ekarri dugu kooperatibara, eta eskarmentu horren balioa sekulakoa da. Une honetan, Maxixatzen Herri Komunikabidearen atzean inoiz egon den talde profesionalena dago lanean, gertuko informazioa lantzen. Azkoitiarrek jasotzen duten produktua hobea eta osatuagoa da orain, eta eskualdeko komunikazio talde nagusia sortu dugula esango nieke herritarrei.




**MIKEL ARRIETA**  
BERTAKO HEDABIDEAK-BERRIA TALDEA

Euskarazko komunikabideak sortu eta sustatzeko sortu zen Berria Taldea 2003ko ekainean, Egunkaria-ren itxiera bidegabearen ondoren. Elkarlana izan dugu ardatz urte hauetan guztietan. Elkarlana proiektu komunikatiboak sortu eta euskal hedabideen mapa osatzen joateko; nazio mailako proiektuarekin batera, tokian tokikoak bertako eragileekin elkarlanean.

Eskualde honetan, Urola Kostako Hitza izan da emaitza (Danbolin, Artzape, Txaparro, Baleike, Uztarria eta Berria Taldeko Bertako Hedabideak sortua). Urrats berria ematea erabaki dugu, egitura bakarrean bateratuz. Eskaintza indartu eta eronkei erantzuteko tresna izan behar du UKTk, eskualderako proiektu komunikatibo sendoa sortzeko bitartekoa.

Orain arte bezala, nazio mailako proiektu komunikatiboak eta tokian tokikoak, elkarlanean, euskarazko komunikabideen mapa osatzen.



**AMAIA SAN VICENTE** UZTARRIA

Herritarrentzat ezinbesteko informazio tresna bilakatu da Uztarria. Bi hamarkada hauetan, ordea, komunikazio arloan eraldaketa handiak izan dira, eta eronka berriei erantzuteko eskualdeko komunikabide txikiek bat egin eta talde indartsu bat osatzeari onura handiak ikusi genizkion. Herritik eta herriarentzat sortutako komunikabideen elkartze honek sinergia ugari ekarri dizkigu: kudeaketan, profesionalen lan baldintzetan, euskarri digitalaren edukietan, aldizkari berrituan... Nabariak izaten ari dira onurak.

Uztarriak azpeitiarren etxeetara, sakelakoetara... eduki berriak ekartzan jarraituko du, beti ere, Azpeitia eta euskara ardatz hartuta. Horretarako ezinbestekoa dugu, orain arte bezala, zuen parte hartzea: bazkidetzekin sostengua emanez, irakurle kritiko izanik eta sare sozialen erabiltzaile finak izaten segituz. Eskerrik asko! ■■■

# BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Aita Mari jatetxea: Arantxa Atxega



Onura fisioterapia: Naiara Eizagirre



Juanjo Larrañaga: Libe Hormazuri  
Alkiza. Bere semeak jaso zuen saria.

## AZAROAK 9

Tipitakiko gosaria.

## AZAROAK 16

Juanjo Larrañaga  
harategiko  
produktuak.

## AZAROAK 23

Sastarrain. Bi  
lagunentzat zaldi  
ibilaldia.

## AZAROAK 30

Onura fisioterapiako  
bale bat.

## ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

### DESKONTUAK

**ERTZ INFORMATIKA:** %2ko deskontua.

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA:** Analisi kapilarra doan.

**UKENDU PARAFARMAZIA:** %5eko deskontua.

**EKIN ELEKTRIZITATEA:** %10eko deskontua lanparetan.

**EGOKI BITXIDENDA:** %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

**IRIONDO OPTIKA:** Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

**ENDAÑETA ETXETRESNAK:** %5eko deskontua.

**GOLDEN GATE AKADEMIA:** %20ko matrikulazioan.

**A3:** %5eko deskontua.

**TALAIA:** ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

**ARTAZA KANPINA URBASA:** %10eko deskontua.

**AIZPURUA LIBURUDENDA:** Liburuak %5 merkeago.

**OSKARBI KIROLDENDA:** %5eko deskontua.

**KALARI JATETXEA:** Igandeko afaria %10 merkeago.

**TRAPAIA:** Igandeko bazkariarekin kafea doan.

**KUKITXA:** Erosketak etxera doan.

**PRIMAVERA PIZZERIA:** Pizzak etxera doan.



### ZOZKETAK

**ONURA:** Fisioterapiako bonoa.

**TIPITAKI:** Gosariak.

**EKAINBERRI:** Bi sarrera.

**SASTARRAIN:** Zaldi ibilaldiak.

**JUANJO LARRAÑAGA:** Produktuen zozketa.

**ANTZERKIRAKO SARRERAK:** Emanaldi bakoitzeko sarrerak.

**SANAGUSTIN KULTURGUNEA:** Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

#### Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: [baleike.eus/bazkidekluba](http://baleike.eus/bazkidekluba)

E-emailez: [administrazioa@baleike.eus](mailto:administrazioa@baleike.eus)

Telefonoz: 943-86 15 45

# SUDOKUA


Plater gustagarriak eta sanoak prestatzeko moduen artean egotea da egokienetako bat. Bete itzazu lauki zuriak, EGO-SIA hitza osatzen duten hizkiekin (E, G, O, S, I eta A). Gogoratu elementu bakoitza behin ager daitekeela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

E			G	
S		A		I
		E	G	
	O	S	E	I
E			O	S
S	I		E	




Hona hemen Pelloziriren bokatarik gustukoena: tomatea, txanpinoia, arrautza, urdaiazpikoa, gaineko ogi zatia eta azpiko ogi zatia. Lagunei ere eskaini nahiko lieke, baina zenbat ogitarteko osa ditzake?

## ASKARIA



## Bizkotxo zopa?!

Bai harrigarri! Neska-mutilok txokolatezko bizkotxo egin nahi lukete, eta horretarako behar duten guztia, tresnak eta osagaiak, zopa honetan daude, aizu. Ea aurkitzen dituzun.





# Erabaki eta Margotu



Zer da hau, pizza ala tarta zati bat? Pizza baldin bada, marraztu iezazkiozu zure gogoko osagaiak. Tarta zati bat baldin bada, apaindu munduko gustagarriena izan dadin.

## Zu bai Hamalau!

Ez dakigu zer prestatu duen Maripurtzilek, eta zer dakarren estalki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki esanda, hamalau diferentzia daude, ikusten al dituzu?




## Itzala

Zein da Pelloziriren (ondoko orrian) itzal zuzena?



## DOMINOAN



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

**7 MARES Izotzuak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

**Agurtzane Okindegia**



Erribera 2 • 943-86 21 52



**AITA MARI**

Jatetxea

☎ 679 10 31 67  
aitamarijatetxea@gmail.com  
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00

**ALBERDI**

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amama**

tel.: 943-54 31 64  
amamataberna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika



Árdantzabide, 3 behea • Zumaia

☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56

**Ardantzabide**

ALTZARIAK-ARROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943-86 16 31

**ARDANTZABIDE**

TABERNA

Ardantzabide, 12  
943-57 22 47



**OLAN DEGIA**  
Arkupela

Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



**Bosch Service**

Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5  
Tel. 943-86 14 85  
autoszumaia@bosch-bcs.com

**Azkué**

www.ricardoazkué.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51  
elena@ricardoazkué.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75  
697 81 24 92

batzokizumaia@gmail.com

Eusebio Gurrutxaga plaza, 6  
Zumaia (Gipuzkoa)

**bai bidea**

Taberna • Jatetxea  
Bar • Restaurante

f t i



finés  
francés  
aleman  
inglés  
español  
catalán  
suomi  
basco  
castellano  
francés  
inglés  
castellano  
finés  
inglés  
suomi  
catalán

**BAKUN**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06  
bakun@euskalnet.net



**Basadi albaitaritza**

Ribitoria  
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10  
veterinaria@basadicriivet.com  
www.basadicriivet.com

Goloz: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia

Larrikidietarako: 605 72 87 07 Etzebe ezveko zerbitzua



# Errespetuz jokatu errespetua merezi ahal izateko



**MIREIA CENTENO**  
PSIKOLOGOA

Haurren eragile nagusiak, batez ere lehenengo haurtzaroan, guraso eta gertuko familikideak gara. Gero, pixkanaka, haurra hazten doan heinean, eredu eta eragile berriak azaltzen dira: eskola, lagunak eta gizartea orokorrean.

Azken urteotan, asko ari gara hitz egiten errespetuzko hazieraz, haurrak errespetuz hezi behar direla... Horrek guztiak familia eta hezkuntza komunitatean hezteko orduan kontzientzia piztea ekarri du eta aldaketa nabarmenak ikusi dira.

Baina, pandemia honetan, argi geratu da gizarteak haurtzaroarekiko duen errespetua eta ezagutza oso mugatua dela.

Pandemiak agerian utzi du haurrak eta nerabeak ez direla eskubide osoko herritartzat hartzen. Itxialdian, helduok etxetik ateratzeko baimena genuen, erosketak egiteko, txakurra paseazeko..., baina haurren beharrak ez ziren kontuan hartu.

Ateratzen hasteko momentuan, haurrak

ordubetez ateratzeko aukera zuten; helduak, aldiz, 4 ordu goizean eta beste batzuk arratsaldean. Berez bakarka edo etxe berean bizi ziren familiakideak elkartzuz, baina kuadrilla batzuk ere onartzen ziren. Haurren arteko jolasak azkar moztu zituzten, ordea.

Geroago, haurrak ordubete ateratzeko baimenarekin jarraitzen zuten; helduak, aldiz, nahi izanez gero egun guztia egon zitezkeen kalean, tabernaz taberna, terrazetan, edaten... Noski, haurrentzako parkeak ez zituzten ireki.

Uda ailegatu zen, eta udalekuak baimendu ziren. Hori albiste ona izan zen haur eta familia askorentzat, baina bi asteren ondoren, tabernetan foku batzuk agertu ostean, udalekuak itxi egin zituzten. Arazoa tabernetan zegoen, helduak biltzen diren lekuetan, baina udalekuak itxi zituzten.

## **PANDEMIAK AGERIAN UTZI DU HAURRAK EZ DIRELA ESKUBIDE OSOKO HERRITARTZAT HARTZEN**

Haurrek ez dute dirurik ematen; beraz, ez dute gehiegi balio gizarte honetan.

Uda ondoren, helduak uda guztia terrazan edaten eta erretzen igaro ostean, gobernutik haurrei eskatu zitzaien beren laguntxoekin jolasa mugatzeko, eta parkeak itxi zituzten hainbat komunitatetan.

Gero kurtso hasiera etorri zen. Berrito ere helduak uda guztia tabernetako terrazan egoteko aukera izan eta gero, musukorik gabe, tarterik utzi gabe, eta legeak esandakoari jaramonik egin gabe; haurrak, berriz, lerroan jarrita, distantziak gordez, musukoarekin eta beraien arteko jolasa mugatuz bueltatu dira eskolara. Eta berrito parkeak ixten hasi dira.

Gizartea ez da eredu egokia izan eta ez du errespetuz jokatu. Eta horrek guztiak, lehen esan dudan moduan, agerian utzi besterik ez du egin lehendik bazegoena.

Jakin nahi haurren eta nerabeen errespetu faltak nondik datozen?

Besteak guk errespetatzea nahi badugu, guk besteak errespetatu behar ditugu. Hor duzue gakoak. ■■■

# PUBLIZITATEA



**BASUSTA**  
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98  
asadorbasusta@hotmail.com



EDU  
ZUMAIAKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaia, Gipuzkoa  
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16



**EGOKI**

Erlou  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87




Ekin  
ELECTRIFICADOS, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97  
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**



**ERNIO**  
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

**ERTZ INFORMATIKA**



Portatilen mugikorren  
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

**Galdona**



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

**Garaa**



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola  
tel.: 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**GLENCOE**  
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 behea  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com

**Gure-Txokoa**  
aberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943-86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera  
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE**  
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

**Iriondo optika**



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orotarako soinua  
eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

**IRUITZ**  
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta  
tratamendu  
personalizatuak



MISTOA

San Telmo12 943-86 07 60

# Etsamina



**TESTUA:** IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

*Etsamina: norbaiti zerbaitetarako gauza den edo gai batez zenbat dakien ikusteko egiten zaion proba multzoa. Denok egin ditugu noizbait, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin, eta nerbioak adina poz edo disgustu izango genituen, emaitzaren arabera.*

*Gehienok aspaldi egingo genuen azkena, baina gure inguruko haurrei edo gaztetxoei begiratuta, badakigu gutxi gorabehera nolako azterketak egiten dituzten. Baina nolakoak ziren duela 150-200 urtekoak? Zer eskatzen zieten ikasleei?*

## 1866an

Uda da, uztailaren amaiera. Haurrek amaitu dituzte klaseak, eta ohi bezala udal agintariak (zinegotziek) egiaztatu nahi dute zenbateraino aurreratu duten ikasleek aurtengoa. Aurreko urteetako azterketak begiratuta, nahikoa beldur dira, ez baitaukate eskarmentu onik, ezta herritar gehienek ere, itxuraz: “[maisuz] hallándose ya disgustados el vecindario de su mal proceder y visto el poco adelanto que tienen sus

discípulos que dimana de la poca instrucción del profesor”<sup>1</sup> eta “[maistras] se ponga en conocimiento de la Junta cómo fueron expulsadas de su escuela las niñas de dos concejales, a las que correspondía por su edad el reglamento para la admisión en su escuela y de consiguiente viendo la repugnancia de ellas para asistir a la escuela de la referida maestra Doña Ángela y lo poco que adelantan”<sup>2</sup>. Duela gutxi (1857an) onartu da Moyano legea Madrilen, eta eskumen handiagoa eman die udalei segimendu estuagoa egiteko herriko hezkuntzari eta derrigorrezko hezkuntza agindu du 6-9 arteko umeentzat, neskak barne. Herriaren (Udalaren) ardura da haurrek behar bezala ikasten dutela ziurtatzea, eta ez irakaslearena edo gurasoena.

Zumaian bi eskola daude, bata mutilena, bestea neskena.

## **AURREKO URTEETAKO AZTERKETEI BEGIRATUTA, BELDUR DIRA, EZ BAITAUKATE ESKARMENTU ONIK**

Ez dira gaur egun ezagutzen ditugunak bezalakoak, aparteko eraikinetan, baizik eta etxe partikularretan daude, eta maisuak eta maistrak urtero kexa ugari adierazten dizkiote Udalari, bizi duten egoera kaskarra dela medio: gela txikiak eta desegokiak irakaskuntzarako, ume asko eta elkarren gainean, neguan hotz handia eta udan bero, soldata kaskarra eta ume batzuek ordaintzen ez, haur batzuk parbuloen eskola partikularretara joaten dira beren eskolara joan beharrean... Udalak denak entzuten ditu, baina oraingoz ez dauka ezer hoberik eskaintzeko, ezin du gauza handirik egin. Mutilak guztira 85-90 inguru dira eta Pedro Galdeano dute irakasle, 1862tik; neskak, berriz, 65-70 inguru, eta Vicenta Parodi da maistra, 1865etik. Eskola horiez aparte, ume txikieneztat badaude eskola partikularrak, adibidez, Joaquina Etxeberriarena.

Egun batzuk lehenago, zinegotziek udal plenoan erabaki dute haurrak noiz eta nola aztertuko dituzten, eta abisua helarazi diete maisuari eta maistrari: “Se acordó

también que los exámenes se celebren el viernes y sábado próximos continuando seguidamente con los de las niñas, poniendo al efecto en conocimiento de los profesores el presente acuerdo”<sup>3</sup>.

### Mutilak

1866ko abuztuaren 3an, goizeko 9etan, “Junta local de instrucción pública” osatzen dutenak elkartu dira, hau da: Sebastian Gartxotenea (alkatea eta batzordeburua), Joaquin Uriarte, Jose M<sup>a</sup> Rezusta, Eusebio Gurrutxaga eta Francisco Etxaniz zinegotziak eta Pedro Etxaniz idazkaria. Udaletxeko bilera gelan, aurretik sartu da irakaslea bere ikasle guztiarekin (67), eta herritarren bat ere joan da, izenik ez badago ere, aurretik horretarako aukera eman dietelako: “fijados los anuncios de costumbre, a fin de que pudieran presenciar este acto los vecinos que tubieren [sic.] por conveniente”<sup>4</sup>.

Hasteko, zortzi urteko mutil batek diskurtsoa egin du “en un sentido alegórico en el cual manifestó lo importante que es la educación primaria en la juventud para la prosperidad de los pueblos, como cimiento verdadero de nuestra religión para conseguir algún día

nuestra felicidad, la dicha y el consuelo de los padres”. Gero, irakasleak urtean zehar izandako hutsegiteak (edo “piperrak”) laburbildu ditu.

Sarrera horren ondoren, benetako azterketa hasi da, irakasleak berak proposatutako programaren arabera, irakurketarekin; sekzioka (adinarekin arabera), liburuak edo testuak eman dizkiete mutilei irakurtzeko, eta emaitza ona izan da: “habiéndose observado en ellos que por su buena acentuación y estilo que mostraron individualmente en dicha clase se hallaban bastante perfeccionados y adelantados respecto a los exámenes últimos celebrados el año anterior”.

Gero, idazlanak aztertu dituzte, aurreko urteetakoarekin alderatuta, baina ez Juntakoek bakarrik; aitzitik, han dauden beste herritar batzuk ere begiratzeko aritu dira: “varias personas ilustradas que se hallaban en este acto”. Idazlanak ere begi onez ikusi dituzte: “se notó en ellas en general buena forma de letra, perfección de ortografía y acentuación”.

Hainbeste luzatu dira lan horietan, bazkalordua iritsi da,

eta arratsaldeko hiruretan jarraitzekotan geratu dira. Gero, berriz ere guztiak elkarturik, aritmetikako ariketa batzuk jarri dizkiete haurrei arbelean eta ondo erantzun dituzte. Gero, “gramática castellana” gaiari heldu diote, “en la que se hallaban instruidos, contestando satisfactoriamente a varias preguntas”, batez ere esaldiek zer osagai nagusi dauzkaten. Konturatzerako pasatu zaie arratsaldea ere, eta ez dutenez bukatu, biharamunean jarraitzekotan geratu dira.

Hurrengo egunean berriz elkarturik, “doctrina cristiana e historia sagrada” izan dituzte aztergai, “contestando a todo satisfactoriamente”. Azkenik, seigarren sekzioko ikasleek geografiako eta Espainiako historiako azalpenak eman behar izan dituzte: Europaren deskribapena; Espainiako mendi, lurmutur eta ibaiak (baita horiek zer herri nagusitatik pasatzen diren ere), hiriburuak eta zer erresumatakoak diren...; historian, berriz, gertaera nabarmenenak.

Haur batzuk bereziki nabarmendu direla eta, Juntak lehen lerrokoak gailendu ditu: Juan Uriarte, Antonio Trueba,

Tiburcio Beobide eta Antonio Jose Ibarra; irakaslearen lana ere goraiatu dute: “dando esto pruebas [sic.] inequívocas del celo, eficacia y esmero del Profesor que los dirige”. Bukatzeko, ume guztiei gozokiak eman dizkiete, eta gehien nabarmendu diren bederatziei medaila bana, “para que se pusieran en el pecho y sirva de estímulo a los demás”. Horrelaxe amaitu da azterketa.

### **Neskak**

Abuztuaren 6an, astelehenean, udaletxeko areto nagusian, goizeko bederatzietan, berriz ere Juntakoak elkartuko dira, neskak aztertzeko. Aurretik hitzordua jakinarazia zioten maistrari, Vicenta Parodiri, eta agindutakoan, neska guztiekin sartu da aretoan.

Hasteko, mutilekin bezala, zortzi urteko neska batek

diskurtso bat egin du eta azpimarratu du zer garrantzitsua den hezkuntza “para la felicidad y bien estar [sic.] de las familias”<sup>5</sup>. Maistrak aurkeztutako programari jarraitu diote, eta pozik geratu: “habiéndose notado el adelanto en las niñas, desde la sección más inferior a la más elevada”. Irakurketan bereziki nabarmendu dira hauek: Juana Etxaniz, Teodora Azpiazu,



Arrangoletako eskolako mutilak “Don Krispin” irakaslearekin. ZUMAIAKO UDALAK UTZIA

Dominga Zendoia eta Casilda Ibarguren; guztiei, saria eman diete.

Gero, maistrak ikusgai jarri ditu ikasleek egindako josteta lanak, eta “reconocidos que fueron detenidamente por las señoras concurrentes a este acto, quedaron altamente satisfechas, de la perfección con que estaban ejecutadas y comportamiento que mostraron en sus cortas tareas, fuera de las clases de instrucción literaria”.

Amaitzeko, neskei ere sariak eman dizkiete: “pendientes y

estampas caladas a las más instruidas” eta “dulces a las que lo estaban menos y a las más pequeñas”.

Juntako kideek gustura amaitu dute: “quedando igualmente satisfecha la Junta del resultado”.

### Euskara eta geu azterketari

Azterketen dokumentu horietan euskara ez da inon ere aitatzen, baina badakigu bazeukala lekua klaseetan, batez ere dotrinaren irakaspenean. Horren arrastoak aurki daitezke irakasleen fakturretan, liburuak

erosi eta Udalarari ematen zizkiotenean, ordaintzeko: “He recibido de Don León Boneta Maestro de Escuela de esta villa, veinte y ocho reales y treinta y dos maravedís, por el importe de 12 catecismos de Bascuence”<sup>6</sup>, “He recibido de D<sup>a</sup> Vicenta Parodi maestra de niñas de Zumaya (...) 6 libros Diccionarios vascongado y castellano a 2,50 reales uno 15”<sup>7</sup>.

Geu mutil eta neska haien lekuan jarriz gero, azterketa haiek egiten, asmatuko ote genuen zuzen erantzuten? Gaindituko ote genuen? Gustura geratuko ote ziren gurekin lehengo agintari haiek? ■■■



Gure attitta Jeronimo harro zegoen umetan (1906an) eman zioten agiri honekin, idazkera txukunagatik.

<sup>1</sup> ZUA, 72.2, 1864-07-30an.

<sup>2</sup> Ibidem.

<sup>3</sup> ZUA, 73.1 (83), 1866-07-30.

<sup>4</sup> Egun horietakoak hemen daude jasota: ZUA, 73.1 (84-85), 1866-08-03an eta 1866-08-04an.

<sup>5</sup> Egun horietakoak hemen daude jasota: ZUA, 73.1 (86), 1866-08-06an.

<sup>6</sup> ZUA, 76, erreferentziarik gabe, 1869-12-22an.

<sup>7</sup> ZUA, 76, erreferentziarik gabe, 1870-04-06an.



# ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

[gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus)  
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegiak onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioa Foru de Gipuzkoa




ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro




## OSKARBI KIROLAK

**OSKARBI KIROLAKEN 22. URTEURRENA DELA,  
ETA HURBILDU ETA GOZATU  
ZURETZAT DAUKADAN DESKONTUA**

ARROPETAN %20 eta OINETAKOETAN %10




Alai auzategia 14 · 943-14 31 12

# Klarinete doinuak pandemiaren erdian

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Pandemiaren bigarren olatuak bete-betean kolpatu du Zumaia, eta horrek kolokan jarriko du udazkeneko kultur egitaraua. Azaroaren amaieran egitekoa den XIX. Klarinete Maratoia eutsi egiten dute antolatzaileek, oraingoz.

“Protokolo guztiei zehatz-mehatz jarraituko diegu eta espero dugu Maratoia egin, egingo dugula. Posible ez bada, atzeratu beharrean izango gara”, azaldu du Marixi Sesma Klarinete Maratoiaren antolatzaileak. Azaroaren 25etik 29ra bitartean egingo da aurtengo Maratoia, azken hemezortzi urteetan egiten den hemeretzigarrena –urte batean bi maratoi egin ziren–. Musika Bandak klarinete jotzaile gutxi zituen garai batean sortu zuten ekimena, baina ordutik aldaketa ugari izan ditu; behin hasierako asmo haiek beteta, “esperimentazioko foro” bezala ikusten dute antolatzaileek. Pozik dira antolatzaileak ia bi hamarkada hauetan eman duenarekin; ez bakarrik denbora honetan pasatako ikasle kopuruagatik, “baina baita klarinete familiaren ezagutza handitu delako. Lehen



inork ez zekien zer zen klarinete altu bat edo baxu bat. Orain klarinete familia osoaz hitz egiten da”.

Egitarauan berrikuntzak sartzeko gogotsu izan dira beti antolatzaileak, baina aurretik, izurritea dela eta, aldatetak nabariagoak izango dira. Carlos Casadó Espainiako Orkestrako kideak ematen dituen bakarkako ikastaro presentzialak bere horretan mantenduko dira oraingoz, baina beste saio edo ekitaldi batzuk ezingo dira egin. Bertan behera geratu da, adibidez, urtero Valentin Manterolaren estudioan egiten zen pintxo pote musikala, distantziak ezingo zirelako gorde. Azken urteotan arrakasta izan duen Laukote lehiaketa ere aldatu

egingo da. “Parte hartu nahi duten laukoteek bideoak bidali beharko dituzte lehenbizi, eta hor galbahe bat egingo dugu. Onenek izango dute gero lehiaketa parte hartzeko aukera”.

Eduki batzuk modu prezintzalean eskaintzea zaila izango dela jakitun, Internet bidez emango dituzte. Hala, irakasleek podcast batzuk grabatuko dituzte eta ikasleei igorriko dizkiete haiek etxetik landu ditzaten. “Audio artxibo horiek etorkizunean ere erabilgarriak izango dira; ez dira une honetarako bakarrik sortuko”. Alderdi pedagogikoari buruzko online solasaldi bat ere prestatuko dute. “Pedagogiari buruzko hausnarketa egin behar dugu, baina alde positibotik begiratuta. Ezin dugu beti alde negatiboari begira egon”, dio Sesmak.

Jakitun dira birusagatik aurreko urteetan baino ikasle eta entzule gutxiago etorriko direla aurretik Zumaiara. “Baina jendea egon da galdezka ea egin behar genuen, interesa badute, eta horrek poztzen gaitu”. ■

Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
www.xantialtzariak.com

yoana  
ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behea  
943-14 32 78



# ZUMAIA TXARTELA



## APROBETXA ITZAZU ZUMAIA TXARTELAREN ABATANTAILAK

- Txartela doan da eta ez da beharrezkoa bankuz aldatzea
- Doako aseguruak ditu
- Ordaindu hiru hileko epean interesik gabe
- Berehalako kontsumorako kreditua eskaintzen dizu.
- Deskontuak, sariak, zozketak, puntuak...
- Visa txartel batek dituen abantaila guztiekin

*Gertu bizi,  
gertu erosi.*



ZUNTZ  
OPTIKOA  
ZUMAIA

Badator zuntz optikoaren herri sarea. Auzo guztietara zabaldutako sare berri honi esker, ohiko operadore handiez gain, tokiko kooperatiba txikiak eskaini ahal izango dute zerbitzua. Abiadura handiko konexioa izango dugu zumaiar guztiok, eta hileroko kostua gutxitzeko aukera izango dugu.

guifi.net



# PUBLIZITATEA

**ORRAZTEGI ZUMAI A**

943-86 20 83

## JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

**KABI** TABERNA

Pateita Elkezarreta, 15  
943-11 74 27

**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

**KALARI**

Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17

## MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

**LOOK**  
**INDUSRY**

Maite Elosua  
Pelukexi

Auzartzen direnerezat eta ez direnerezat.  
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2 atzealdean  
638 99 90 38

CROISSANERIA

pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

*maximus* **PENCIL**  
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA  
699 49 52 56  
maximuspencil@gmail.com  
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

**MENDI - ONDO S.L.**  
**Elektrizitatea**

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

*"Muagi"*

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

**NOIA S.L.**  
**TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK**

**Etegabeko garabi zerbitzua** **636 86 78 12 (Zumaia)**  
**609 83 44 38 (Itziar-Deba)**

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar indusirgunea, C  
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91  
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

**LIDEN**  
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz  
678 875 652/ 943 905 983  
lur@olidenreformas.com  
www.olidenreformas.com

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12  
oskarbikirolak@euskalnet.net

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indusirgunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

# Gizonok arropa berriari neurria hartzen



## AITAREN ETXEA

**Egilea:** KarmeLe Jaio  
**Argitaratzailea:** ELKAR  
**Argitaratze urtea:** 2019  
**Orrialdeak:** 213  
**Generoa:** Narrazioa



**TESTUA:** ANTTON PEÑALBA

Bikote guztietan daude agerikoagoak eta ezkuuagokoak diren kontuak, isilagoak edo zalapartatsuagoak. Eta bikotekide guztiek ehuntzen dute beren bikote bizitzaren kontakizuna, sarritan bientzat bat ez datorrena. Horixe da, hain zuzen ere, KarmeLe Jaioaren *Aitaren etxea* eleberrian kontatzen zaiguna.

Bere aitaren zaintzaz arduratu behar duen idazle arrakastatsua da Ismael, baina blokeatuta dago eta argitaletxearen epeak betetzeko estu dabil; idazteko gaitasuna ia galdua, sorkuntza krisian dago. Baina beste krisi bat ere areagotzen zaio. Bere lekua munduan zein den aurkitu nahian dabil. Sentimendu kontrajarriak ditu. Batetik, aita zaindu behar du eta horrek deseroso sentiarazten du; eta, bestetik, sanferminetako gertakizunen aurrean beldurra sentitzen du; izan ere, alaba nerabeak ditu. Baina erruduna ere sentitzen da eta errudun sentitze horrek, genero ikuspegiari buruzko galderak ekarriko dizkio burura.

Senarraren (Ismaelen) itzalpean bizi da Jasone, haren testuak zuzentzen eta mamitzen ditu. Bestea izan da bere existentziaren arlo guztietan, emazte fina, alaba zaintzailea, ama konfidentea, senarraren testu literarioen zuzentzaile aparta... Irakurketa talde feminista batean parte hartzen du, eta, taldean ahaldunduta, aspalditik zokoratutako gaztetako ametsak berreskuratzen hasten da: idazten, hain zuen. Erabaki horrek hamaika gorabehera sortuko dizkio bikote bizitzan.

Horiez gain, hirugarren pertsonaia bat ere bada. Libe du izena, eta Ismaelen arreba eta Jasoneren laguna da. Idazleak bikotearen harremanaren arteko zubi lana egiteko, edota neska edo mutila izateak etxe barruan

**“MASKULINITATE BERRIEI” BURUZKO LANTZAT HAR DEZAKEGU ELEBERRIA**

dakartzan desberdintasunak islatzeko erabiliko du.

“Maskulinitate berriei” buruzko lantzat har dezakegu eleberria. Nola izan gizon (heterosexual), aita, senar XXI. mendean? Nola belaunaldi batean, bitan garaiak hainbeste aldatu otean? Nola mugimendu feministen olatuak azpian harrapa ez zaitzan?

Hainbat gai jorratzen dira eleberrian: gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, belaunaldi eta ikuskera ezberdinen arteko talka, gizonen eta emakumeen arteko botere harremanak, pertsona adindunen zaintza, ohartu gabe gurasoen antza hartzen doazen seme-alaben jokaerak eta horien kontraesanak...

Prosa argiz idatzia, hausnarketara bultzatzen du liburuak eta “enpatia” kontzeptuaren zirrikituetan murgiltzen gaitu. 2020ko Euskarazko Literaturako Euskadi saria jaso berri du eta edozein irakurlerentzat da gomendagarri, izan gizon zein emakume. ■■■

## PUBLIZITATEA

**Ostolaza**  
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**  
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

**SOLOZABAI**  
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalautoeskolak.com

**Talaira**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

**Tapaia**  
Taberna

Eribera kalea  
20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**

Izusterri, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (hodilloa)  
Saltxitzak, alloskoak...  
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

**UZKUDUN**  
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 **Zumaia** (Gipuzkoa)  
Tel.: 943-11 63 97

**ALTSASU**  
TELESAIL BERRIA,  
ABENDUAN

**GURE FIKZIOA LEHENA**

# Ekin!



EKAIN ALBITE

**N**ire ahotik atera den arnas lurrunik taldekide guztien atentzioa harrapatu du. Guztiak ditut begira, zain. Lekuan nabaria den hotzak barrutik izoztu nau. Azken aldiz begiratu diot Sambouri, eta, orduan, ahots leunez bota dut hitz magikoa: “Ekin!”.

Errodaje batean gaude, barruraino murgilduta, zentzu literalean, gainera. Gerriraino busti behar izan baikara Itzurungo kobazulora sartzeko laburmetraiaren azken eszena grabatzera. Taldekide guztiak barruko arropetan gaude. Irudi berezia. Pelikularen atzean dagoen pelikula. Hori ere interesgarria izaten baita.

Sambou, oikiarra, dugu protagonista oraingoan, Mikel Ibarguren zestoarrarekin batera. Gazteei buruzko film labur bat grabatzeko gogoa nuen, aspalditik. Biak aktore nagusiak dira, baina Zumaia, herria bera, da laburraren benetako protagonista. Eta bertan bizi diren gazteak. Adin horretako jendeak asko duelako esateko. Bihozmin handiak sentitzen den garaia da gaztaroa. “Bada, gazte kontuak” diote batzuek, esaldi madarikatu horrek zenbat sentimendu estaliko ote zituen.

Neurri batean horretarako balio du zinematik; aitortzen utzi ez diguten mina ateratzeko tresna besterik ez da. Gure

ilusioak, gorrotoak, bete gabeko ametsak, horiek guztiak bertan jartzeko aukera paregabea da.

Burutik kendu ezin dudana anekdota bat gertatu zitzaigun laburra prestatzen ari ginen bitartean. Zumaia hainbat gazterekin elkarrizketan genbiltzan gidoia guztiz itxi ahal izateko. Haien bizitzari buruz galdetzen nien, haien etorkizunari buruz, haien ilusioei buruz. Guztiek lotsatuta begiratzen zidaten, erdizkako erantzunak emanez. Halako batean, haietako batek aurpegiratu zidan, “Baina hik uste al dek hemen zoze interesgarriya dagoela kontatzeko?”. Hurrengo egunetan galdera hori bueltaka ibili zen nire buruan.

## GURE ILUSIOAK, GORROTOAK, HORIEK GUZTIAK BERTAN JARTZEKO AUKERA PAREGABEA DA

Geroago konturatu nintzen galdera hura bera zela laburmetraia egiteko arrazoi nagusia. Istoriarik nahi ez dutenen istorioa baitzen gurea. Haien ilusioak eta gogoak barru-barruan ezkututzen duen jende hori zen laburraren protagonista. Horrelakoa baita gure herria. Isiltasuna da bizitzari aurre egiteko dugun modua. Laburmetraiak isiltasun hori pantailara eramanez nahi izan du. Ezkutuko sentimendu horiek gorpuztuko zituen jendearekin, hemengo jendearekin, bertakoak soilik uler baitezakete zer den emozio hori. Hein handi batean sentitzen genuen gure istorioa laburmetraiaren gainetik zegoen zerbait zela, gu guztiok gaintzen gintuen zerbait.

Isiltasun horren atzean, baina, mundu guztian topa dezakegun sentimenduen borroka ikaragarria dago. Nahikoa baita begietara begiratzea ulertzeko, ahoak esaten ez duen hori begiak oihuka esaten ari direla. ■

**Zalla**  
 • plater konbinatuak  
 • ogitartekoak  
 • oilasko erreak  
 Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA**  
**AUTOESKOLA**  
 Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

# Herdoildutako labana suitzarra



JUAN LUIS ROMATET

**K**azetaritzako labana suitzarra bezala ikusten dut neure burua batzuetan; hala modukoa, aukera gutxikoa, zaharra, kamustuta eta herdoilduta dagoena, baina labana finean. Egun bakarrean, goiz batean, minutu gutxiren tartean, arraun kontuak lantzetik, hirigintzakoak idaztera pasatzen dena, eta, garaiarekin bat eginda, eta zientzia kontuetan ideiarik izan gabe, birusak gizaratean duen eraginean aditua bihurtu dena.

Eta ez naiz kexatzen. Askotan gehiago ikasten da askotariko gaiak landuta, gai bakarrean zentratuta baino. Nire kasuan, askoz lasaiago idazten dut ezer gutxi inporta zaizkidan gaiez, gustukoez baino. Pleno batean gertatutakoa kontatzean, adibidez, notario lanak egitera mugatzen dut nire burua: han aztertzen diren gaiak eta iritziak jaso, eta ahalik eta modu ulergarrienean idatzi, askotan asperduratik ihes egiteko aukerarik ez badago ere –udalbatzar batean egon denak badaki zer ikusi gutxi duela dibertsioarekin–. Herriko kaleren batean galtzada harriak aldatu behar dituztela? Zuhaitzak kimatu behar dituztela? Ez dakit zer kirolarik sekulako balentria egin duela? Hor egongo naiz, askotan ideiarik eduki gabe, gauzak ahalik eta ondoen kontatzen. Eta argazki polit batekin jantzita badoa, hobeto.

Kultur gaiak interesatzen zaizkit: musika, komikiak, liburuak, zinema... Ustez gai horiez zerbait badakit (edo ez), baina ez dut gogoko kultur gaiez idaztea. Hobeto esanda: urduri jartzen naiz, gaizki pasatzen dut; gustuko dudan hori besteei transmititu nahiko banie bezala sentitzen naiz, eta ez du horrek izan behar nire lana. Idazteko era ere aldatu egiten dut; barrokoagoa bihurtzen da, beste gaiekin erabiltzen dudana idazkera funtzionaletik urrun; eta hor konturatzen naiz nire hiztegia, nire lexikoa, nahiko motza dela.

Hala ere, noizean behin, animatzen naiz eta irakurritako liburu baten inguruko kritika, edo ikusitako kontzertu baten kronika idazten jartzen naiz. Zarauzko Literaturiaren barruan Pettik irailaren amaieran eman zuen kontzertuko kronika idatzi nuen *Zarauzko Hitzarako*; orain gutxi Testura laukoteak bere lehen diskoa aurkeztu zuen Azeptian, Dinamoan, eta haren kontakizuna idatzi nuen *Uztarriarako* eta *Urola Kostako Hitzarako*. Eta nerbioso jartzen naiz, oso nerbioso, eta neure buruari galdetzen diot ea zergatik sartzen naizen halako kaka-nahasteetan. Gero, akaso, kronikako protagonistak mezu bat bidaltzen dizu eskerrak ematen, egoa puzten zaizu, eta esaten hasten zara horretara bideratuko dudala neure lana, halako kronikak idaztera. Ez, ez, inola ere ez; inork ez diezadala kendu goiko plazako galtzada harrien aldaketaren albistea. Hor ez naiz nerbioso jartzen. ■■■

**INORK EZ DIEZADALA  
KENDU GOIKO PLAZAKO  
GALTZADA HARRIEN  
ALDAKETAREN  
ALBISTEA**



burdindegia

# Galdona

Denda:

Mendaro marinela, 1

943-14 33 46

Biltegia:

Jose Mari Korta industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**

# BIYONA

## BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea            sukaldea  
bainugela    ...  
leihoak  
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



# Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)



**ENDAÑETAK**  
ez du saldu  
bakarrik egiten,  
arreta ere  
ematen du



**Tien21**

[www.endañetazumaia.com](http://www.endañetazumaia.com)

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47